

Errenderi'ko txistulariak

Etxean sei musika-tresna genitun: piano, bioliñ, pilarmonika, pik-up eta radio bat. Gure belarri gaxoentzat naiko zala uste genun bañan, orra, lengo egunean zazpigarrena iritxi zaigu: txistua.

Zer egin? Artu...eta pozik gañera. Lizaso'tar Gillermo da txistu orren egillea, Errenderi'ko Alexander txistulari famatuaren aita.

Gure seme zarrenarentzat biali digu. Mutil gizarajoak Colejioko ikastaldi larrien ondoren, pianoa ikasi bear du etxean. Beste instrumento bat ikasteko astirik izango al du?, galdetzen genion gure buruari.

Olako txilibito polita ikusirikan (zura beltz-beltza, zillarezko eraztunez apaindua) neronek ere ikas nezakeala iruditu zitzaidan. «Au erreza dek» esanaz, txilibito artu, beatzak zuloetan egokiro jarri, punta aora eraman eta... etxeko gaxuak eta auzolagun atsekabeak! Sinfoni bikaiña sortu zitzaidana! Azkenean, zenbait nota motelen ondoren, ikaragarrizko *pii* garratzak egin nitun. Negargarria!

Gure mutillak ordea, nik ez dakit noiz eta nola, «Andre Madalen», «Ator mutil», «Iru damatxo» eta baita Beethoven Conzierto baten asiera ere ikasi ditu jotzen, ola edo ala. «Ori dek abilidadea» esaten diot nik, bekaitzez josia.

Bañan etsia nauzute, garbi baita txistuak eztuela ezer nai nerekin. Nik, orde, biotz-biotzez maite dut txistua, baita bere lagun danboliña, ta bere jotzalleak. Txistuaren soiñu alaiatz igaro baiditut nere aurtzaroa eta gaztearo-lenen-urteak...

Gogoratzen naiz, bai, aurtzarooan... meza nagusi ostean... igande eguzkitsu aietan... (zergatik iruditzen zaizkigu ain argitsu aurtzaroko igandeak?). Bertso berri-saltzallea, «Beso motxa», an zan, Concejo-plazan, bere bluxa luzeaz jantzita, eskumuturrekin paperak kontzen, bertso berriak kantari. Nik, egia esateko, ez nion kasorik egiten, ezbainenkien euskeraz orduan. Ni txistulariak entzutera joaten nintzan.

Garai artan Jauregi jauna zan Errenderi'ko txistulari nagusia, eta bere taldeko lagunak: bere semea ta Mutro. Giza-seme dotore ta jatorra Jauregi! Surpeko biurri-ta, lepoan pajarita ta guzti, zaldun aundiki bat zirudien. Txistulari-talde arek euskel-obrak ez-ezik, zarzuelako puxkak ere jotzen zitun: «El barberillo de Lavapiés», «El molinero de Zurita» eta orrelakoak.

Gero, urteak igaro-ta, txistulari berriak etorri ziran, eta berekin sari asko eta izen aundia. Aien artean baitzan gutxi bezelako artista on bat: Lizaso'tar Alexander. Lizaso-ren lagunak: Lizardi, Errazkin (Potxolo) eta Goñi atabaleroa ziran.

Lizardi kendu-ta, beste iruak mundu ontatik joanak ditugu. Lizardi oraingo bandan dago. Ez dute gaurko txistulari gazteak irakasle makala!

Lizaso'tar Alexander-oroiimenari nik bein «El Bidasoa»-n eskeiñitako itz auek emango ditut emen: (Pizkunde-igandea zan.)

Ire oroimenez, gaur, illobi ezezagunaren ondoan, urretxindor bat izango duk kantari.

Eta txoria ari dan zugaitz-ostro-artetik Eguzkiak bere printzak bialiko dizkik, lurra laztantzeko.

Berpiztuko al aiz, txistulari apal ori, eta berriz ire doiñuaz lengo gizadia dantzatuko al dek?

Etzekiat. Bañan lo agon inguru basati ortan, amets-erromeri eta jaiegun alai aietako aurrekuak izango dituk gaur.

AYALDE

